

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

343 - 2026ko OTSAILA

ZORTZI MILA METROTIK
ETXEKO GAILURRERA

IRISGARITASUN PLANA MARTXAN DA



Irisgarritasun Plana 93.000,00 euroko aurrekontuarekin lantzen ari da, lurraldeak turismo-baliabide irisgarriak izan ditzan. Helburu nagusia, turismo inklusiboa sustatzeko tresnak ahalbidetzea, sentsibilizatzea eta trebatzea da, helmugako zerbitzu eta produktu turistikoetan irisgarritasun unibertsala bermatzeko. Plazaola-Sakana-Ultzamaldea Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planaren barruan kokatzen da. Europar Batasunak finantzatuta NEXT Generation EU funtsen bidez.

Plazaola-Sakana-Ultzamaldea helmugako Irisgarritasun Plana irailean hasi zen eta 2026ko lehen lauhilekora arte

iraungo du. Accesscity enpresa inplementazioa gauzatzen ari da.

Proiektuko ekintzak ikusarazteko, webgune zehatz bat dago. Lanen artean, baliabide turistikoaren audiotoretzak daude eta laster, Turismo Baliabide Irisgarrien Katalogoa eta Turismo Produktu Irisgarrien Katalogoa egingo dira.

Adi! Sare sozialetan eta bestelako hedabideetan proiektuaren aurrerapenak ikus ditzakezue.

Irati Lure Gorraiz
Cederna Garalur Elkarte



**aseguru
gintza
XXI**

**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

**HOSTAL
BETELU**

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta
pizza goxoak

Erreserbak:
948 51 30 26 - 663 97 67 09

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda

hamabostaldi
eskaintza bereziak

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADI!!! TLF BERRIA:
680 102 689

CONSTRUCCIONES

ERAIKUNTZAK

CONSTRUCCIONES

URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK

FATXADAK

ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri

**Construcciones
Gañarbe**

ERREABILITAZIOAK

IGELTSERITZA

FATXADAK

TEILATUAK

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri

📞 616 457 540

✉ construccionesganarbe@gmail.com

02

CEDERNA GARALUR

04

KUXKUXEAN Zorion agurrak

07

MAITE DITUT MAITE
"Ireber lontzatik"

8

ELKARRIZKETA
"Aralar gure Himalaia zen"
Felipe Uriarte Camara
(Pasaia Donibane - Gaintza)



12

BATZARRE

14

ERREPORTAJEA
"Arteak lasaitasuna eskaintzen dit"
Elena Maria Tome Pereda (Betelu)



18

KULTURA

28

PLAZATIK PLAZARA
"Nire ikerketa lurrazaleko satelite-
irudien esparruan kokatzen da"
Yue Uriarte Alfaro (Aldatz)



31

AGENDA

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA
HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz,
Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz,
Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri,
Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas,
Lekunberri, Lezaeta, Madotz,
Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkarte.

L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen
bertan adierazitako iritzi eta
esanen erantzukizunik.

issuu.com/maillopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Ainhoa Beraza, Aitor Irastortza,
Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati
Moreno, Mikel Hernandorena eta
Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK:

Aimar Garaioa, Ainhoa Beraza,
Aitor Etxarri, Bingen Beguiristain,
Eider Martirena, Felipe Uriarte,
Juan Antonio Garaikoetxea,
Mikel Ijurko, Mikel Martirena,
Perkatzena Sagardotegia, Xabier
Etxarri eta Yue Uriarte.


· PUBLIZITATEA:

Irati Moreno - 660 476 041

info@maillope.eus

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak,
eskualdeko Udak, kontzeju eta
bazkideek babestutako
aldizkaria.



Ane Eguzkitza Telletxea

7 urte

Zorionak, Ane!

Otsailaren 3an zure eguna izanen da.

Egun polita izanen duzula esperoz,

musu asko familia guztiaren partez.

Aunitz urtez, eder hori!



**Guratz eta
Xuban Soroa Mugertza**

Otsailaren 24an, 2 urte!

Zorionak, bikote!

Ongi ongi pasa!

Musu potolo bana!

Itxaso Oreja Altuna

Otsailak 1ean, 11 urte.

Urte askoz, politte!

Segi beti bezain alai eta bizkor!

Musu haundi bat denon partez!



Oier Mitxaus Fuentes

9 urte

Zorionak, Oier!

Urtarrilak 19an 9 urte beteko dituzu!

Segi beti bezain jator eta alai.

Musu handi bat familia guztiaren partez.

Lier eta Beñat Goikoetxea Arévalo

Otsailaren 1ean, 9 Urte.

Zorionak, bikote!

Segi beti bezain alai.

Musu erraldoi bana etxekoan partez.

Ongi pasa!



Ariane Zurutuza Zabala

Otsailak 9an, 2 urte.

Zorionak, Ariane!

Familia osoak asko matte zatteu.

Musu handi bat, txikitina!



**Araitza eta Izai Ezeiza
Martiarena**

Araitza Ezeiza Martiarena,

otsailaren 1ean, 14 urte

Izai Ezeiza Martiarena,

otsailaren 2an, 11 urte.

Zorionak, bikote! Jada 14

eta 11 urte!

Datozen urteak

iragandako hauek bezain

politak izan daitezela!

Musu bana.



Mailope aldizkaria zorion agurak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu info@mailope.eus helbide elektronikora,
edo WhatsApp bidez **660 476 041** telefonora hilaren
20a baino lehen.



Lagunasesoria S.L.

**Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhua

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin
eta bertan eskuz egindako madalenak,
erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com



URTE HASIERA HOTZA IZAN DA

Hilabete osoan zehar tenperatura baxuak mantendu dira eta urte hasiera gorabeheratsua izan da; elurteek, euriek eta haize ufadek atsedenerako ia tarterik gabe jo dituzte ibarreko herriak, eta urtea heze hasi da.

Halaber, Errege Eguna hotza eta elurtsua izan zen, eta tenperatura baxuak nagusitu ziren.

Beraz, Nafarroako Gobernuak herritarrei zuhurtzia handitzeko eskatu zien Estatuko Meteorologia Agentziak (AEMET) alerta horia aktibatu ondoren elurteak izateko zegoen arriskuagatik.

Izan ere, Euskal Herriak 'Goretti' depresioaren azken astinduak jaso ditu eta giro hotza mantendu da.



CORREOSEN IZANDAKO ELKARRIZKETAK EMAITZA ONA IZAN DU

Larraungo eta Lekunberriko Udalek Correosekin egindako gestioek bilakaera positiboa izan dute. Euskara ikasteko eta euskaltegia trebatzeko prest azaldu da langilea eta egoera bideratu egin da alde guztien arteko elkarrizketaren eta elkar ulertzearen bidez.

Langilearekin ere bildu ziren udal ordezkariak eta bere ezinegona adierazi zuen, sareetan zabaldu zen mezuak bera jartzen baitzuen fokuan. Udalek onartu dute zabaldutako mezua ez dela izan egokiena, eta informazio desegoki hori konpontzeko neurriak hartu dituzte. Langileari barkamena eskatu diote eta argi adierazi dute eskaria ez dela izan langilearen aurkakoa; eskaerak Correos interpelatzea zuen helburu.

Langileak adierazi du berak ulertzen eta onartzen duela udalen eta herritarren eskaria, eta bere esku dagoen guztia egingo duela zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan eskaini ahal izateko.



LEKUNBERRIKO UDALAK 2026KO AURREKONTUA ONARTU DU

Lekunberriko Udal batzarrak hirugarren urtez jarraian onartu du Udal Gobernuak aurkezturiko aurrekontu proiektua, eta 3.737.874,40€-ko aurrekontua izango du.

Aurrekontu horiek herrian dauden beharrei erantzuteaz gain, tresna eraginkorrak izango dira legealdi hasieratik finkatu den ibilbidean aurrera egiten jarraitzeko. Udalerriarentzat estrategikoak diren inbertsioak eta neurriak bultzatzeko balioko dute. Halaber, justizia sozialean, berdintasunean eta jasangarritasunean aurrera egiteko aukera emango dute.

Arkaitz Goikoetxea Lekunberriko alkateak nabarmendu du udalean lan egiteko beste modu bat finkatuko zutela eta horrela egin dute aurrekontu proiektuan ere: herritarren ekarpenak jaso dituzte, eta hirugarren urtez jarraian, oposizioaren ekarpenak ere kontuan izan dituzte aurrekontuak osatzeko.

Informazio gehiago:

<https://labur.eus/5smh15kg>

► Aitor Goikoetxea Mariñelarena (Uztegi)



Ikusmenaren paradoxa da gaur hemen duguna aztergai begi gazte lerdarenentzako futbol soro leun ta zelai.

Lehenengo mendeko attunarentzat sasi ta osinak hor nonahi zaharrak nahi eta ezin ikusi gazteak ez ikusi nahi.

Begirada bat entzumenari "Trumpeta" hotsa berriari munduan ez omen da parekorik bere alden denak ezgai.

Bakearen Nobel sarirako partaideetan ikusgai esperantza aitzur ta San Pedrok egin dezatela epai.

Doinua: Aita-semeak tabernan daude. **Hurrengoa:** Kemen Aldabe Alustiza (Lekunberri).



Iker Arretxea Arauzo (Lekunberri).

IRITZIA

BAKE NOBEL SARIA

Luzaroan pentsatu izan dut, Oslon, Norvegiako hiriburuan, Bake Nobel Sariak emanen zizkietela pertsona eredugarriei, hau da, gizaki bakezale, baketsu eta bakegileei, alegia, ezaugarri horiengatik nabarmendu diren gizasemei edota gizalabei, esate baterako, Mahatma Gandhiren tankerako pertsonen, adibide bat jartzeagatik, baina, argi eta garbi dago, aurten behintzat, ez dela inola ere bete suposizio hori, izan ere, Corina Machado aurtengo Bake Nobel saridun venezuelarrak, nabarmendu du Maduroren gobernuak <egitura kriminala> duela. AEBek egindako eraso zibil eta militarrek txalotu ditu, eta, baita Nicolas Maduro eta Cilia Flores emaztea indarrez bahitu eta eramatea ere. Halaber, Venezuelako Gobernuak <narkotrafikoarekin eta pertsonen legez kanpoko trafikoarekin finantzatzutako gobernu bat> dela ere salatu du.

AEBek Maduro eta Flores preso eramateaz gain, herrialdearen kontrola ere Washingtonek hartuko duela iragarri Donald Trumpek. <Trantsizio seguru bat> eta

<kudeaketa egokia ere egin nahi duela> adierazi du. Baina, AEBetako armadak inbasioa egiterakoan, hildakoak eta zaurituak ere sorraziti ditu, hau da, biktima errugabeak. Hala eta guztiz ere, Trumpi operazio bikaina eta arrakastatsua iruditu zaio; errepikatzeko modukoa. Bere helburua justizia lortzea omen da. Baina horretarako, adituen arabera, Nazio Batuen Erakundearen Gutuna urratu omen dute, batez ere 1. eta 2. artikulua: herrialde bakoitzaren subiranotasunaren errespetua, berdintasun juridikoa eta indarraren erabileraren debekua bermatzen dituztenak. Baita NBERen Gutunaren 51. artikulua, alegia, Venezuelak eskubidea duela bere herria eta bere lurraldea defendatzeko.

Bueno, ba, Corina Machado ados baldin badago irregularitasun antidemokratiko horiekin guztiekin, nork sinis lezake Bake Nobel Sari on bat merezi lezakeela?

Xanti Begiristain Madotz.
Auritz, 2026-01-08.

URZUBI S.A.
GASSÓ
Tel. 948 504 241
urzubi@hotmail.com
LEKUNBERRI



TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza


CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxe: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com


SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com


ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

Hurrengoa:

Adrian Dos Santos Garro (Lekunberri)



Xabier Etxarri Otermin
(Lekunberri)

maite ditut maite gure bazterrak

Ireber lontzatik

Ibilbidea: zirkularra

Distantzia: 6 km

Desnibela: +315 m

Zailtasuna: ertaina



Zergatik aukeratu dut?

Bide hau aukeratu dut eramangarria delako eta ikuspegi ederrak dituelako, baina aldi berean eskakizun maila bat du. Gainera, gure ingurutik gertu dagoen bide bat da. Horrek, askotan egitera eta bidearekiko gertutasuna izatera eraman nau.

Bidea:

- 1 Ibilbidea lontzatik hasiko dugu. Beruetetik errepidea jarraituz 3 km-tara aparkatu eta GR-12 bidea jarraituko dugu.
- 2 3 Lehenengo 2 km-etan egingo dugu igoera guztia, lehenengo zatia basoan barne eta gero malda gogorreko hormigoizko pista batetik.
- 4 5 Hormigoizko pista bukatzean ezkeraldera joko dugu. GR-12 utzi eta azkeneko igoerari ekingo diogu Ireberreko tontorra ikusiz.
- 6 Ireberreko beste aldeko lehenengo malda jaisterakoan zati ilun eta lokaztu bat pasako dugu baina ibilbidea ongi markatuta dagoena. Basotik ateratzean etxe batekin topo egingo dugu.
- 7 Gero ezkerrean jo eta pista jarraituko dugu Beruetetik igotzen den errepidearekin topo egin arte. Errepidera iristean Oringo iturria ikusiko dugu, bertan ura edateko aukera egongo da. Azkeneko 2 km-ak errepidetik egingo ditugu, ibilbideko abiapuntura iritsi arte.

● ● Felipe Uriarte Camara (Pasaia Donibane - Gaintza).

“Aralar gure Himalaia zen”



Felipe Uriarte Cholatse mendian.
Argazkiak: Felipe Uriarte.

Felipe Uriarte Camara Pasai Donibanen jaio zen 1944ko martxoaren 17an. 41 urte daramatza Gaintzan bizitzen. Industria ingeniaria eta UIAGM Goimendi Gidaria da.

Mendiz mendi egin du bizitza: Cervino, Huascarán, Cho Oyu, Makalu, Denali (McKinley), Ismael Samani, Spantik, Aconcagua, besteak beste.

Horretaz gain, Uriarteren hitzetan, “idazlea ez den baina idazten duen pertsona bat da” eta Marmotarenak izeneko ipuin ilustratu autoekoitzia argitaratu berri du.

Zergatik erabaki zenuen Gaintzan bizitzea?

Duela 65 urte, Pasai Donibane mendizale gaztetxo batentzat Aralar gure Himalaia zen. Bertan ikasi nuen eskalatzen, eskiatzen, mendi gailurretako bideak bilatzen, bidaiatzen...

Hainbat lagun egin nituen inguruan. Halako batean, haietako batek —Juan Gorritik artistak — Gaintzan etxe bat saltzen zutela adierazi zidan. Ikustera etorri, Pastandegiako atzeko atean eseri, Balerdi begiztatu, eta di-da batean erabaki nuen bertara etortzea. Geroztik 41 urte igaro dira, eta Pasaia izanik, plazer handiz araitarra naizela esan dezaket.

Himalaian ere egon zara eta hainbat mendi ospetsu igo dituzu. Zer nolako konparaketak egin ahal dituzu Aralar eta Himalaiako men-

dilerro horiekin?

Mendien neurriei dagokien oso desberdinak dira. 8.000 metroetara igotzea edo 1.400 metroetara kontu ezberdinak dira. Baina mendizalea suna ez da metroetan neurtu behar, emozioetan eta sentipenetan baizik. Alde horretatik ikusita Aralarrek eta Himalaiak antzeko aukerak eskaintzen dituzte.

“Nire 81 urte motxilan hartu eta 2025eko urria eta azaroan Nepaleko Himalaiara partitu nintzen”

Nire 81 urte motxilan hartu eta 2025eko urria eta azaroan Nepaleko Himalaiara partitu nintzen, Chomo-

lungma (Everest) eta Kanchenjunga mendien ingurura. Hangoak, benetan inguru ederrak dira. Pastandegiara azaroak 29an itzuli nintzen, eta abenduak 1ean, eguraldi bikainaz eguneroko mendi itzulia egiten arin nintzen Azkun aldean. Burua altxatu, eta han aurrean zegoen Mailopea eguzki izpiez bustia, eta nirekiko xuxurlatu nuen: “Toki eder batetik nator; baina hau? Zein ederra gure Mailopea !!”. Poza handia sentitu nuen, konturatu nintzelako gune zoragarri batean bizi naizela. 8.000 metroko mendi baten aurrean egoitea ederra da, baina Balerdi aurrean bizitzeko antzeko emozio duzu. Are gehiago, Balerdi gurea da. Eta sentimendu hori sakona da, oso.

Esker onekoa sentitzen naiz Mailopean bizitzeko aukera izateagatik. Sarritan pentsatzen dut ez diogula

duen balio guztia ematen. Baserriak husten ari dira eta tamalez, garai batean baino utziagoa dago dago gure ingurua. Baserritarrek zaindi baitute mendez mende Mailopea. Baserritarrek ez garenok haien lana eskertu behar dugu; hitz ederrak botatzen ditugu, baina Mailopea mantentzeko lurra landu behar da etaazienda zaindu.

“8.000 metroko mendi baten aurrean egotea ederra da”

Ongi legoke gazteak, lantokietara baino, baserrira itzuliko balira. Horretan lagunduko beharko genduke.

“Baserritarrek ez garenok haien lana eskertu behar dugu”

Mendizalea izateaz gain, Marmotarenak izeneko ipuin ilustratua argitaratu duzu...

Lehenik eta behin esan behar dut ez dudala nire burua idazle bezala ikusten.

Atxaga, Sarrionandia edo Joxe Mari

Iturralde ezagutzeko zortea izan dut, eta izugarritzko formakuntza duten pertsonak dira. Ofizio zaila da, eta lotsa ematen dit nire burua idazle gisa ikusteak. Esango nuke idazlea ez den baina idazten duen pertsona bat naizela.

Marmotarenak istorioa niri gertatutako pasadizo txiki batetik sortu zen. Arantzazu eta biok Pica d'Estats mendira joan ginen, Pirinioetako ekialdeagoan azken hiru mila metroko mendia, Katalunian. Katalanentzat oso mendi kuttuna da; guretzat Hiru Erregeen Mahaia den bezala. Gailurretik aterperuntz jaisten ari ginela, bidera baino aldera begiratu, eta muxar edo marmota baten zuloan, hobeto esanda bere etxean, makila sartu nuen. Ia erori nintzen!

Aterpera iritsi ginenean, mendizaleon ohitura jarraituz, garagardotxo pare bat edan genituen. Lehenengo garagardoa edan ostean, gertakari txiki hura gogora etorri zitzaidan eta motxilako koadernoan zirriborro bat idatzi nuen.

“Marmotarenak istorioa niri gertatutako pasadizo txiki batetik sortu zen”




Ipuinean aipatzen diren protagonistak marmotak dira, eta istorioan aita eta bi alaba daude...

Pirinioetan gertatzen da istorioa. Kanpin-denda bizkarrean, Aita eta bi alabak asteburua mendian igarotzerara joan dira. Neskatiletako bat —Teresa— kanpamentutik urruntzen da. Une hartan istorioaren sorburua gertatzen da: makila zulo batean sartzen du, eta muxarra haserre ateratzen da, makilaz begian jo diola arranguraz. Lagunak egingo dira, marmota eta neskatila, eta bizitzaz eta mendiaz hitz egingo dute.

Ipuina osatzeko, lagungarri dira ilustrazio dotoreak...

Marmotarenak ipuin-ilustratua da: Arte Ederretan aditua den Irene San





Sebastianek egindako marrazkiak ditu. Nire ustez marrazkiek bigarren irakurketa bat eskaintzeaz gain, ipuina geografia eder batean kokatzen laguntzen dute. Irakurleentzat lagungarriak izatea espero dut.

Oso pozik nago Irenek egin duen lanarekin. Nahiz eta adin-diferentzia handia izan, bion arteko lana zoragarria izan da. Halako elkarlan bat egitea ez da batere erraza, eta zorionez, oso ona eta pozgarria izan da.

Ipuina autoekoitzia da...

Egia esan, ipuina hiru argitaletxetara bidali nuen, baina inork ez zidan liburua argitaratu. Hala ere, istorioa partekatu nahi nuen eta autoekoiztea erabaki nuen. Izan ere, ipuinarekin eta nire buruarekin leiala izan nahi nuen eta autoekoiztea ezinbestekoa izan zen proiektuari amaiera eman nezan.

Liburua ekoiztea ez da zaila, ezta erraza ere. Argitaletxe bat ondoan

ez baduzu, zuk zeuk egin behar duzu dena: marrazkilariarekin elkarlana, inprentako ardura guztiak... eta gastu guztiak ordaindu. Horren guztiaren ondoren liburua saltzen saiatu behar zara.

Marmotarenak liburua Mailopean salgai dago, Betelu herrian, Atabal okindegian, eta Lekunberrin Amaia-ren Lanbroa liburu-dendan.

“Mailopeko biztanleok izugarrizko zortea dugu”

Eta etorkizunean...

Ahal dudan neurrian, mendiriz mendi bidaiatzen jarraituko dut; urtero bezala saiaturiko naiz Himalaiara itzultzten. Han inguruan hainbat lagun ditut, eta plazerrez joaten naiz haiek bisitatzerara.

Mendia nire gustuko lekua da. Giza-kion izpirituentzat zuhaitzen artean ibiltzea, gailurrak ikustea eta natura sentitzea elikagai ona da. Halaber, mendian bizi diren pertsonen kulturaren murgiltzea oso aberasgarria da.

Alde horretatik, Mailopeko biztanleok izugarrizko zortea dugu, ez baitago halako leku bat bezain toki hobeagorik bizitzeko. Ongi gaude hemen, ongi bizi gara hemen. Zaindu dezagun gure Mailopea!



Makalu ezkerrean.



Gokyo.



Himalaiako lagunekin.



▶ ARAITZEN BIZI NAHI DUTEN HERRITARREK "ETXEBIZITZA TALDEA" SORTU DUTE

Araitzen bizi nahi duten eta etxebizitza lortzeko zailtasunak dituzten hainbat gazte elkartu ziren pasa den urteko abenduan.

Gaia mahai gainean jarri eta egoera larriari elkarlanean konponbideak aurkitzeko hausnarketa sakona egin zuten.

Ondorioz, WhatsApp aplikazioan taldea sortu dute eta momentuz, pare bat bilera egin dituzte.

Beraz, antzeko egoeran baldin bazaude, interesa izanez gero eta taldean parte hartu nahi baduzu, sar zaitetz hurrengo web orrialdean: <https://chat.whatsapp.com/Gk3iE4hRcDgDHVfMZbw7Ks>



▶ ARALARREN PAUMAK BIZI DIRA

Ondare Kultur Taldeak adierazi duenez, pauma edo hegazterren bat baino gehiago bizi dira Aralarreko basoetan zehar, Larraungo eremuan.

Hauek faisaien familiako hegazti handi eta kolore biziak dira, jatorriz Asia Hegoaldekoak.

Ondarek azaldu duenaren arabera, iraganean, Baraibarreko herritar batek hegazterrenak hezi zituen bere baserrian eta batek baino gehiagok hegana ihes egin zuten.

Orain aske bizi dira gure Ibarrean.

'ESNATU ALA HIL' LIBURUAREN AURKEZPENA IZANGO DA PRINTZAN

Esnatu ala hil liburuaren aurkezpena eta honen inguruan eztabaidatzeko aukera izango da martxoaren 6an, arratsaldeko 18:30etan Printzan, Garikoitz Goikoetxea autorearen eskutik. Euskararen egoera bidegurutze batean dago, baita horren bultzada den euskalgintza bera ere. Testuinguru hau argitzeko nahiak ekarri du *Esnatu ala Hil*. Euskararen oraina eta geroa, diagnostiko baten argitan, Iñaki lurrebaso eta Garikoitz Goikoetxearen lan berriaren argitalpena. Hizkuntza-larrialdiaz eta euskararen egoera titular diren garaiotan, ikuspegi demo-linguistikoa oinarri, hizkuntzaren osasunari buruzko aldagai nagusiak ditu aztergai. Euskararen bilakaera eta egoeraren azterketa, euskararen-indarberritze prozesuaren urratsak argitzeko asmoz.





GAZTETXOKORAKO BI BEGIRALE BEHAR DITUZTE

Lekunberriko Garapen Elkarte S.L.-k Gaztetzokorako bi begirale kontratatze eta lan-poltsa bat sortzeko deialdia zabaldu du.

Gaztetzokoa 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago.

Saioak Lekunberriko Ibarberri ikastetxean gartuko dira; ostiral eta larunbatean, arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara.

Irakurri hemen albiste osorik: <https://labur.eus/mkg3x3sc>



ARGAZKI ETA GABONETAKO ARGIEI LEHIAKETEN SARIAK BANATU DITUZTE

Urtarrilaren 4an, Lekunberri eta Larraungo Udalek antolatutako Argazki eta Gabonetako Argien Lehiaketan sariak banatu zituzten Gabari Gune Irekian.

Argazki Lehiaketan 33 partaide izan dira aurtien eta udalen hitzetan: "Urtetik urtera partaidetza handituz doa eta baita argazkien kalitate ere". Guztien artean aukeraturako 12 irudiekin ibarreko egutegia osatu dute.

Juanma Zubia izan zen azaleko irabazlea, eta berarekin batera Iñaki Montes, Juan Antonio Garaikoetxea, Nerea Oreja, Luisa Aldaburu, Jone Gabari, Yolanda Juanena, Itziar Gastesi, Juan Miguel Fernandez eta Olga Barea- ren irudiek ere saria lortu zuten. Bestalde, Argien Lehiaketan irabazle suertatu ziren Ana Ileapaindegia (Merkataritzak kategorian), Raquel Chasco (Etxea) eta Laura Chasco (Etxebizitza). Haiei guztiei, zorionak!

BETELU ETA LEKUNBERRIKO ALKATEEK URTEKO BALANTZEA EGIN DUTE

Batetik, Lontxo Zubillaga, Beteluko alkateak, 2025 urtearen errebaso eta balorazioa egin du Aralar irratian. Urte positiboa izan dela adierazi du eta aurrera ateraren hainbat proiektu azaldu ditu; eskolako jantokiaren arrakasta, besteak beste.

Entzun elkarrizketa osorik hemen: <https://labur.eus/mkg3x3sc>

Bestetik, Arkaitz Goikoetxea Arriola, Lekunberriko alkatea ere irratira hurbildu da urtean zehar egindako obrak, berriketak (batez ere Alde Zaharreko lanak), uraren digitalizazioa eta ur-partzuergoan izandako gertakariak azaltzeko.

Entzun elkarrizketa osorik hemen: <https://labur.eus/mkg3x3sc>



●● Elena Maria Tome Pereda (Betelu).

“Arteak lasaitasuna eskaintzen dit”



Elena Maria Tome Aitz Berrin.

Elena Maria Tome Pereda Ile-apainketako eta Estetikako goi-mailako teknikaria da. 1980an, lanbide heziketa amaitu bezain laster, Elenak eta bere ahizpek Aitz Berri ile-apaindegia zabaltzea erabaki zuten; lokala gurasoena zen, eta hasieratik haien babesak izan zuten.

14

Aurten 35 urte bete dira Aitz Berri zabaldu zutenetik. Hala ere, Elenak moda eta estetika munduan formatzeko jarraitzen du, eta urtean behin Madrilera joaten da ikasitakoa etengabe berritzera.

Aitz Berri ile-apaindegiairen sorrera eta bilakaera

Elena Maria Tome eta bere ahizpak elkarrekin proiektu polit bat garatu nahi zuten, eta horretarako hainbat baliabide zituztela konturatu ziren: formakuntza, lokala eta ilusioa, besteak beste. Horrela, elkarlanean, Aitz Berri ile-apaindegia ireki zuten. Denbora aurrera joan ahala, egoera asko aldatu zen. Elena Tomeren ahizpa To-

losara joan zen bizitzera, eta handik sei urtera Idoia, langile berria, batu zen Aitz Berrira. Ordutik, elkarrekin aritu dira lanean, eta dagoeneko 16 urte daramatzate talde berean.

“Bezeroek behar dituzten zerbitzuak gerturatu nahi ditugu ile-apaindegira”

Aitz Berrin eskaintzen dituzten zerbitzuak askotarikoak dira. Ile-apainketaren alorrean: ile-mozketa, tindaketa, tratamendu kapilarrak eta etxez etxeko zerbitzua eskaintzen

dituzte. Estetikaren arloan, berriz: depilazioa, aurpegiko garbiketak, hilean behin podologoaren zerbitzua, depilazio laserra eta bezeroen eskariaren arabera mikropigmentazioa egiten dituzte. “Bezeroek



Kakorratzez egindako zuhaitzetako apaingarriak.



Kakorratzez egindako zuhaitzetako apaingarriak.

behar dituzten zerbitzuak gerturatu nahi ditugu ile-apaindegira”, azpimarratu du Tomek.

Azken urteotan, zerbitzuez gain, prestakuntza eskaintzearen alde ere egin dute Aitz Berriko langileek. Noizean behin azalaren diagnostikoak egiten dituzte eta tarteka, makillaje-ikastaroak ere antolatu izan dituzte; azala nola garbitu eta makillatzeko oinarritzko teknikak lantzeko. Etorkizunari begira, prestakuntza eskaintza zabaltzeko asmoa dute. Izan ere, Itziar Barriolaren lan bikaina jarraitzen du Tomek, eta harekin harremanetan jarri ondoren, talde bat osatzeko aukera adostu zuten. Beraz, otsailaren hasieran kolorimetriari buruzko ikastaroa eskainiko dute, azalaren azpiko tonuen arabera kolore egokiak aukeratzen ikasteko (ilean, makillajejan, apaingarriak...).

Harremanak eta bizipenak

Herritarrekin izan duen harremanari dagokionez, Tomek positiboki baloratu du urte hauetako esperientzia: “Askok gustatzen zait jendearekin elkartzea”, eta harremana beti ona izan dela dio. “Araitx, Larraun eta inguruko herrietako bezeroak ere Aitz Berrira etortzen dira”.

“Estetika eta ile apainketako sektorea eraldatu direla esan dezaket”

Urte hauetan guztietan, Aitz Berriko esperientzia berriak bizitzeko aukera eskaini dizkie Elena eta Idoari. Batzuetan, eskariaren arabera, ezkontzetarako ere deitu izan diete eta kanpoan egindako lan batzuk bereziki gogoangarriak izan dira: “Hainbat esperientzia bizi ondoren, estetika eta ile apainketako sektorea eraldatu direla esan dezaket. Gaur egungo makillajeak eta orrazkerak lehen baino naturalagoak dira”, adierazi du Elena Tomek.

“Hala ere, oroitzapenik kuttunenak eguneroko harremanetatik loratzen dira eta balio handiena duen oparia

bezeroen maitasuna jasotzea da”. Edozein unetan bezeroek lore sorta bat edo baratzeko barazkiak oparitzea benetan berezia da Tomerentzat; “Horrelako xehetasun txikiek hunkitu egiten naute” aitortzen du. “Herritarren maitasuna sentitzeak zoriontsu sentiarazten nau”.

“Aitz Berri bizitza da”

Sormenez jositako artelanak

Ile-apainketa eta estetika ez dira, ordea, Tomen adierazpide sortzaile bakarrak. Artista ere bada. Txikitatik amaren ondoan ikasi zuen kakorratzarekin josten. Gaur egun Amigurumiak dira gehien lantzen dituen artelanak. Halaber, noizean behin, herriko zuhaitzak kakorratz-lanez apaintzen ditu eta iaz, lehen aldiz, ferietara joaten hasi zen. Hura esperientzia aberasgarria izan dela aipatu du: “Leku berrietan izan naiz eta gertuko herriak beste ikuspuntu batekin ezagutzeko aukera izan dut. Horretaz gain, lagun berriak egin ditut. Gainera, familiaren laguntza ezinbestekoa izan da”. Izan ere, Tomeren anaiak asko lagundu du, eta prestutasun



Elena María Tome ardi latxaren Amigurumiarekin.

horri esker elkarren arteko harremana sendotu dute.

Hala, sormena betidanik izan du bi delagun. Txikitatik zetorkion barruko bulkada da: "Amari oihalak lapurtzen nizkion arropa eta jantzi bereziak egiteko. Gainera, orrazkera berritzailak sortzen nituen". Geroago, sormen hori lantzea beharrezko bihurtu zen Tomerentzat; artea ezinbestekoa izan da barruko ezinegonari irtenbidea bat emateko: "Arteak lasaitasuna eskaintzen dit eta egunero sortzen dut. Marrazten ere ikasi nuen, baina denborarekin trebezia galdu dut. Hala ere, erretiratzen naizen unean berriro ekingo diot. Izan ere, irudi bati bizia ematea oso zaila dela uste dut, eta horretarako naturaltasunez barrutik sortzea ezinbestekoa da".

Materialei dagokienez, Elena Tomek kalitate handiko kotoia erabiltzen du. "Horretaz gain, ardi latxaren artilearekin ardi itxurako Amigurumi bat egin dut. Izan ere, sortutako papiak gehienetan haur txikientzat izaten dira eta segurtasuna lehenesten dut".

Proiektu artistikoak

Sormenari lotutako proiektuei dagokienez, Tomek erreferente ugari jarraitzea ditu: "Niretzat inspirazioa iturri dira eta elkarlanean lan egitea maite dut". Beraz, Beteluko zuhaitzen proiektua sortzeko, lehenengo pausoa Nerea Yeregi artistarekin eman zuen. Hasieran, Zigari elkartearen parean dauden bi zuhaitzetan kakorratzez egindako apaingarriak jarri zituzten, eta poliki-poliki, ekimena handitzen joan da. "Horren harira, pasa den urtean Klean Josteko Eguna ospatu genuen, baina eguraldi txarra egin zuenez, Beteluko elkartearen elkartu ginen. Hala ere esperientzia oso polita izan zen", gaineratu du.

Beraz, artelan horien bidez, bere ilusioa transmititu nahi du: "Jendearen erantzuna oso positiboa izan da. Pozik sentitzen naiz herritarren errespetua eta zaintza nabaritzen ditudalako. Gainera, askok jarraitzeko animatzen naute eta horrek indartzen nau".

Hura izan zen elkarlanean sortutako lehen lana; gainerako proiektuak, berriaz, bakarka garatu ditu. Hala ere,

etorkizunean proiektua dimentsio handiagoan garatzea gustatuko litzaioke, komunitatearekin elkarlanean.

"Bakoitzak bere aletxoa jartzen badu, herria edertu eta sendotu dezakegu"

Horretaz gain, Beteluko zahar egoitzan denbora libreko monitorea lanetan ere aritzen da astelehen, asteazken eta larunbatetan: "Iaz, harriak kolorez margotu eta zuhaitzen azpian jarri genituen, eta pixkanaka beste proiektu txiki batzuk garatzen ari gara". Tomeren ustez, horrelako ekimenek herriari bizia ematen diote: "Bakoitzak bere aletxoa jartzen badu, herria edertu eta sendotu dezakegu".

Ilusioz betetako etorkizuna

Beteluko ile-apaindegi kuttuna zer den galdetu ostean, Tomek zera erantzun du: "Aitz Berri bizitza da". Urte asko daramatza bertan. Halaber, lanera umore onez joaten da, nahiz eta batzuetan egun zailak izan.

Etorkizunera, Tomek zerbitzua eskaintzen jarraitzeko asmo sendoa du: "Osasunak laguntzen banau, Aitz Berrin jarraituko dut. Ikastaro berriak eskaintzeko gogoz nago".

Proiektu berriei dagokienez, argi du sortzen jarraituko duela. Urtarri-lerako eta otsailerako kakorratz-tailerak burutuko dituzte Aitz Berrin, eta hiru igandetan banatuko dira talde tikitan. "Horretaz gain, Mendialdeko Feria Ibiltarian parte hartuko dut, eta norbaitek nahi izanez gero, amarekin egindako txanoak, poltsak eta bestelako osagarriak Aitz Berri ile-apaindegian eskuratu daitezke. Amaitzeko, kakorratzezko proiektu handi batean parte hartu nahi dutenek, nirekin harremanetan jar daitezke. Ilusioa partekatu eta sormen kolektiboari forma eman nahi badiozu, animatu!".

"Amak eta biok egindako txanoak, poltsak eta bestelako osagarriak Aitz Berri ile-apaindegian eskuratu daitezke"



Elenak eta bere amak egindako diru-zorroak.

●● Fermin Ixurko Astiz (Uitz).

100 urte bete ditu Uitziko Fermin Ixurko apaizak



Fermin Ixurko senitartekoein.
Argazkia: Mikel Ijurko.

17

Fermin Ixurko Astiz uitziarrak 100 urte bete zituen abenduaren 29an Artzain Onaren apaizetxean, bertan bizi baita gaur egun.

Abenduaren 28tik 29rako gauerdian Ixurkok kontzienteki bizi zuen bere mendeurrenaren hasiera. Gaur egun, erorketa baten ondorioz gurgil-aulkian mugitzen bada ere, bizkor jarraitzen baitu. Ondoren, primeran ospatu zuten Andre Maria Erregearen plazako egoitzan, non lankide apaizek, senitartekoek eta hainbat agintarik zoriondu zuten; tartean, Iruñeko artzapezpikuak, Florencio Rosellok, eta Iruñeko zein Larraungo alkateek, Joseba Asironen eta Mikel Huartek.

Ixurko Uitziko Mikelenea etxean jaio zen eta bere familian bederatzi anai-arreba ziren. Jakako eta Nafa-

rraoko hainbat herritan aritu zen pastoral lanean, baina bereziki Larraungo ibarrarekin lotura estua izan zuen. Gainera, irakurle amorratua eta jakintsua izateagatik ezaguna da, halaber, hainbat libururen egilea da eta Euskaltzaindiako kide urgazlea ere bada.

Hala, ospakizunean Ixurkoren hiru anai-arreba izan ziren: 97, 93 eta 81 urtekoak. Ekitaldian musika, Gabon-kantak eta doinu tradizionalak izan ziren eta hainbat opari jaso zituen; besteak beste, 100 urteak ospatzeko txapela eta liburuak.

Zorionak, Fermin Ixurko!



Fermin Ixurkoren 100. urtebetetze eguneko une bat.
Argazkia: Santiago Garisoain.

24. KORRIKAre ibilbidea prest da

Inoizko parte-hartzaileena izatea du helburu aurtengo KORRIKAK. Bidean, Korrikak Euskal Herriko hiriburu eta herri ugari zeharkatu-ko ditu: Maule, Donibane Garazi, Iruñea, Baiona, Donostia eta Gasteiz, besteak beste. Herriz herri, kalez kale eta errepidez errepide, 11 egunez eta 10 gauetz "euskara garela" erakutsiko du Korrikak.

24. KORRIKAre ibilbidea prest da: 3436 lekuko-hartze izango dira lasterketan zehar, eta 2175 kilometro izango ditu aurten ibilbideak. Hala, euskararen aldeko ekimen erraldoia Atharratzetik abiatuko da martxoaren 19an, 15:30ean, eta 11 egunez Euskal Herri osoa zeharkatu ondoren, Bilbon amaituko da martxoaren 29an. Halaber, gure ibarretatik ere igaroko da. Martxoaren 23an izango da hori: Madotz (18:37), Astitz (19:03), Alli (19:23), Lekunberri (19:36), Lezaeta (20:34), Betelu (20:47), Arribe (20:54) eta Atallu (21:00).

Ibilbidearen xehetasun guztiak KORRIKAre webgunean eta aplikazioan kontsulta daitezke. Aplikazioak, gainera, lasterketa zuzenean jarraitzeko aukera eskainiko du geolokalizazioaren bidez, eta martxoaren 19tik 29ra eguneko bideokronikak eskainiko ditu. iOS eta Android gailuetarako doan eskuratu dezakezu.

Azkenik, aldi honetako ekitaldietara kit osoarekin joan nahi bada, arropa berria Larraungo AEK euskaltegian erosi daiteke, Lekunberrin.





Mailope 2026 egutegiko irudi bat.
Argazkia: Luis Mari Ugarte Arruebarrena.

Mailopeko egutegiak baditu argazki irabazleak

Mailope 2026 egutegia urtarrilean banatutako 342. alean argitaratu genuen. Guztira 56 argazki jaso genituen eta hautatutako irudien egileak hurrengo hauek izan ziren: Ana Telletxea, Ane Barberia, Arantxa Mikeo, Belen Saralegi, Eva Fernandez, Felipe Uriarte, Jone Gabari, Joxe Mari Zabaleta, Luis Mari Ugarte, Marijo Arroki, Mikel Mugiro eta Yolanda Juanena.

Mila esker parte hartzera animatzeagatik!

Ur sarea digitalizatzeko lanak egin dituzte Lekunberrin

Pasa den hilabetean hainbat zulo egin ondoren, kutxatila jarri dituzte Lekunberriko zenbait kaleetan. Ondorioz "Kallejoia" esaten dioten kalea itxita egon zen astebete inguru. Halaber, Laboral Kutxaren ondoan zegoen zuloa hesiz babestu zuten, eta Lekunberriko Udalak arretaz ibiltzeko eskatu zien herritarrei.



2025 urteko Lekunberriko inauteriak.

Inauteriak antolatzen hasi dira

Festa Batzordearen bilera irekia egin zuten Lekunberriko 2026ko Inauteriak antolatzen hasteko. Hitzordua urtarrilaren 13an izan zen, Lekunberriko Udaletxeko Batzar Aretoan. Bilera irekian, ideiak, proposamenak eta ilusioa partekatu zituzten. Ondorioz, adin eta gustu guztietako herritarren artean, otsailaren 7an karrozen ikuskizuna, mozorro lehiaketa eta Herri Bazkaria ospatzea erabaki zuten. Halaber, Aldatz, Gorriti, Betelu eta Gaintzan ere inauterietako egitarauak prest dituzte, ikusi dena kontrazalean.

Urteko lehen inauteriek Uitziko kaleak alaitu dituzte

Mikel Martirena eta Aritz Zabaleta izan dira aurtengo maiordomoak. Hurrengo urtekoak Oier eta Ander Igartua izango dira. Hala, urtarrileko bigarren larunbatean egin zuten erronda eta eguraldi kaxkarrarekin ospatu zuten festa. Igandea berriz, eguzkitsuagoa eta lasaia-
goa izan zen.



Albaitaritza
baserritarren
zerbitzura

Akaborro Ind., 31860 Iruztzun
www.albaitaritza.com · 948 500 343



Txotx denboraldiari hasiera eman diote Toki Alai sagardotegian

Urtarrilaren 15ean txotx denboraldiari hasiera eman zion Iker Vicente Saralegi aizkolariak Lekunberriko Toki Alai sagardotegian.

Dolarea Nafarroako Sagardo Ekoizleen Elkarteak antolatu zuen egitasmoa. Izan ere, elkarteak osatzen duten bost sagardotegiak Toki Alai, Martitxonea, Larralde, Linddurrenborda eta Perkatzena dira. Halaber, elkarteak lanean ari da Nafarroa Euskal Sagardoa Jatorri Deituran sartzeko. Horrela, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean aritzeko, sektorea indartzeko eta marka bateratu bat sustatzeko.

Beraz, itxura onez hasi dute denboraldia, eta bertako sagarrekin egindako 150.000 litro inguruko ekoizpena aurreikusi dute. Hala, denboraldia udaberri edo udara arte luzatuko dela adierazi du Toki Alai sagardotegiak.



Iker Vicente Saralegi txotx denboraldiari hasiera eman ostean, Lekunberriko Toki Alai sagardotegian. Argazkia: Perkatzena.



Juanluzenea Sagardotegia. Argazkia: Aitor Etxarri.



Martitxonea sagardotegia. Argazkia: Bingen Beguilistain.



Perkatzena sagardotegia. Argazkia: Perkatzena.

Gainontzekoen bizitza baloratzeko eskuliburua

"Betebeharraren" eta "nahi izatearen" urak etengabe gurutzatzen diren mundu batean bizi gara, ibai paraleloak balira, noizean behin elkar jo eta korronte zurrunbilotsuak sortzen dituztenak. "Bete-beharra", larrialdien eta erantzukizunen moztararekin, baimenik eskatu gabe iristen da gure bizitzetara. Inguruko arau ez-idatzien arabera zer egin behar dugun gogorazten digu, gizartearen itxaropenak betetzea eskatuko baligu bezala. "Nahi izatea", ordea, xuxurla errebelde bat da, gure izatearen sakonean piztutako sugar bat, batzuetan betebeharraren mareak itotzen duena.

Bada, antza, bizitza "zuzenaren" eskuliburu bat: markatutako bidetik ez desbideratzea eta espero bezala erantzuteari buruz mintzo dena. Besteen begientzat onargarria den irudi bat mantendu behar dugula dioena. Gizartearena. Errotutakoa. Nolabait, idatzi gabeko horri erantzuteko ezinbestekoak dena.

Eta parean nahia: libreago izateko gogo, geu geuganako joatekoa, espero zenaren pisurik gabe sortzekoa. Horra hor bizitzak eskatzen duenaren eta arimak irrikatzen duenaren arteko pultsua.

Topatzen dira inon betebeharra eta nahi izatea. Batzuetan oreka prekarioan. Agian, bizitza bi ibai horien artean nabigatzea dela onartzea besterik ez da gertatzen, bata bestea irentsi gabe eta bakoitzari bere garaian dagokion indarrarekin jariatzea ahalbidetuz. Eta esanen nuke borroka horretan, kaos ordenatu horretan sortzen dela gure benetako esentzia.



“Txirrindularitza bizitzeko modu bat da”



Aimar Garaioa Arevalo lekunberriarrak, Leitzako Amazabal Institutuan batxiler ikasketak egin zituen eta 2025ean Datuen Zientziak ikasten hasi zen unibertsitatean. Txirrindularitza irizpide izan du betidanik eta ‘ZU ETA BLOK’ talde leitzarreen aritu ondoren, dagoeneko ‘LaTorre’ errepideko talde nafarrekin lehiatzen da, Sub-23 mailan.

Noiz eta nola hasi zinen txirrindularitza?

Txirrindularitza betidanik izan da garrantzitsua nire bizitzan, aitaren hobb-ya ere baita. 3 urte nituela nire lehen bizikleta erosi zidaten, ez nuen pedalik eta horrekin hasi nintzen. Geroago, 4 urterekin pedaldun bizikleta bat erosi zidaten eta horrela ikasi nuen. 8 urterekin hasi nintzen lasterketetan parte hartzen. Horrela, aitzak mendi lasterketetara eramaten ninduen.

Mendi lasterketak udaran izaten dira, horregatik, 15 urterekin neguko denboraldian ziklo-krosa egiten hasi nintzen, eta bi diziplina txandakatzen nituen. 17 urterekin udako denboraldian, mendi lasterketak egiteaz gain, errepideko diziplina egiten hasi nintzen. Egun, udan errepideko lasterketak eta neguan ziklo-kros lasterketak egiten ditut.

Noiz konturatu zinen bizikletan sakon hasi nahi zenuela?

Junior mailara pasa ondoren, 16 urterekin, proba zorrotzagoak zirela konturatu nintzen. Entrenatu ezean lasterketak amaitzea oso zaila baitzen. Aurkariak asko entrenatzen ziren, hala nola, entrenatzaile pertsonal eta nutrizionistekin. Horregatik, gogor entrenatzen hasi nintzen, lasterketetan lehiakorra izateko eta gozatu ahal izateko.

Orain zein mailatan lehiatzen zara, zein da zure taldea?

Aurten Sub-23 mailan nago, nire lehenengo urtea da eta oraindik ez dut parte hartu maila honetako errepideko lasterketa batean. Beraz, urduri sentitzen naiz, nire aurkari asko profesionalekin aritzen baitira. 2025era arte Leitzako ‘ZU ETA BLOK’ taldeko kide nintzen, baina 2026 urtearen hasieran ‘LaTorre’ taldera aldatu nintzen, errepideko talde nafarra baita.

Nolakoa da zure entrenamendu egun arrunt bat?

Unibertsitatea arratsaldean daukadanez, goizean entrenatzen dut. 07:00etan edo 08:00etan esnatu eta eguna aprobetxatzea gustatzen zait eta. Entrenamenduaren iraupenaren arabera, entrenatzera atera baino lehen ikasten dut batzuetan, halako hotzarekin ez entrenatzeko. Goizean entrenatzea abantaila bat da, horrela, arratsalde osoa dut unibertsitatean hanke atsedean har dezaten.

Zein da zuretzat entrenamendu egun gogorrena? Nolakoa?

Niretzat, gogortasuna ez dago lau orduko saioetan edo serie leherkorretan, ez didate arazo bat suposatzen; fisikoki gustatzen zait eta sufritzen eta

estutzen gozatzen dut. Niretzat gogorrena eguraldi txarrekin ateratzea da. Euria, hotza edo haize gogorak jotzen duenean, entrenamendua erronka bat bihurtzen da hasieratik. Erritmoa mantentzea zaila da eta buruak ‘nahikoa da’ esaten dizu etengabe. Horrelakoetan, diziplinak garrantzi handiagoa du indarrak baino.

Non entrenatzen zara?

Entrenamendu gehienak Lekunberri inguruan egiten ditut. Madotz, San Miguel, Azpirotz, Uitz... horiek dira gehien igotzen ditudan mendateak. Batzuetan, nonbaitera joan behar badugu, Donostiara adibidez, familiarekin elkartzeko, nik aprobetxatu egiten dut eta bizikletaz joaten naiz. Urtarrilean adibidez, 17tik 25era Benidormen izan gara oportetan, txirrindulari paradisua baita eta eskusiboki entrenatzera joan ginen.

Elikadura ere zaintzen duzu?

Elikadura zaintzen dut, baina obsesio-natu gabe. Saiatzen naiz osasuntsu eta garbi jaten, badakidalako bizikleta gainean hobekuntza nabaritzen dela. Batez ere saio luzeetan eta ondorengo errekupeazioan ematen diot garrantzia, baina tarteka kapritxoren bat jatea ere gustatzen zait, buruarentzat ere ona delako.

Baduzu ohiturarik edo “erritualik” lehiatu aurretik? Eta zein izan da orain arte gehien markatu zaituen lasterketa?

Batetik, lehiatu aurretik musika alaia entzutea gustatzen zait, aktibo eta umore onez sentitzeko.

Bestetik, gehien markatu nauen lasterketa, zalentzarik gabe, Gipuzkoako Itzulia da. Lau etapa dira eta oso gogorra da, maila handia dagoelako eta atsedean hartzea oso zaila delako. Oroitzapen onak ditut, bizikletan eta taldean ari-tzeari buruz asko ikasi nuen.

Azken urteetan zertan hobetu zarela nabaritu duzu?

Azken urteetan, gehienbat errekupe-

ratzeko gaitasunean eta esfortzuaren kudeaketan hobetu ditudala nabaritu dut. Lehen, serie gogor bat egin eta gehiago kostatzen zitzaidan errekupe-ratzea; orain, ordu askoko saioak egin ditzaket eta hurrengo egunean berriz ere topera egoteko gai naiz.

Horrez gain, mentalki asko hazi naiz. Orain hobeto ezagutzen ditut nire mugak; badakit noiz estutu dezakedan eta nola mantendu lasaitasuna une kritikoetan.

Zertan hobetu nahiko zenuke?

Aurten nagoen kategorian txirrindulariak gero eta hobeagoak dira, beraz, maila berean jarraitzea eta nire indarrak hobetzen jarraitzea gustatuko litzaidake. Hobetzea gustatuko litzaidakeen beste gauza bat jaitsiera teknikoak dira, ez baita oso polita mendatea topera igo eta jaitsieran atzeratzea. Batez ere asfaltoa bustita dagoenean, ni beldur handiarekin jaisten naiz eta horrek lasterketan asko zigortzen nau.

Nork laguntzen zaitu gehien bide honetan?

Bide honetan laguntzarik handiena nire aita da. Txirrindularitzak sakrifizio asko eskatzen ditu (ordu asko, bidaiak, prestakuntza...), eta bera gabe ez litzateke posible izango. Ziklo-kroseko denboraldian elkarrekin joaten gara lasterketa guztietara, bera ere lehia-tzen baita. Zaletasuna aitarekin partekatzea hoberena da eta lasterketetara elkarrekin joatea eta elkarri laguntzea. Errepideko denboraldian amak eta ai-

tak berdin laguntzen naute, lasterketa guztietara eramanez, animatuz eta garrantzitsuena: mendateetan espe-roan izaten dira ur-bidoiak emateko.

Zer garrantzi du familia eta lagun-en babesak?

Funtsezkoa da. Txirrindularitza kirol oso bakartia izan daiteke, ordu asko pasatzen ditugu bakarrik sufritzen. Horregatik familiaren eta lagun-en ba-besa izatea oso garrantzitsua da au-rerra jarraitzeko. Aita edo txirrindulari lagunak nirekin entrenatzera etortzen direnean, oso ongi sentitzen naiz.

Zein helburu bete nahiko zenituzke etorkizunean?

Helburu nagusia ziklo-krosean Na-farroako txapelduna izatea da, au-ten, ordubete bizikleta gainean egon eta zirkuitu oso gogor bati 10 buelta eman ondoren, lortzeko 2 segundora geratu nintzen eta bigarren postua-rekin konformatu behar izan nuen. 2025ean XCM modalitatean Nafarroa-ko txapeldun izatea lortu nuen eta oso pozik nago, horregatik gustatuko litzaidake ziklo-krosean lortzea.

Amaitzeko, zer da zuretzat txirrindularitza?

Niretzat txirrindularitza bizitzeko modu bat da, hobby bat baino askoz gehiago. Sakrifizioa, diziplina eta nor-bere burua gainditzeko gogoia irakatsi dizkit. Azkenean, nire pasioa da eta egunerokoan nire onena ematera bul-tzatzen nauen motorra.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi diz-kizuet elkarriketa honengatik. Eta bide beretik, nire taldeari, nire aitari eta nire amari bereziki eskerrak eman, eguneroko bide honetan nire ondoan egoteagatik. Beraiek gabe, ezingo nuke txirrindularitzaz modu honetan gozatu.

Ezer gutxi gehiago. Denboraldi be-rriaro gogoz ekiteko prest nago eta la-nean jarraituko dut erronketan maila ona emateko. Eskerrik asko!

“Helburu nagusia ziklo-krosean Nafarroako txapelduna izatea da”



Garaioa bizikletan.

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

PUBLIZITATEA MAILOPEN
Mailope aldizkaria - 660 476 041
info@mailope.eus

CONSULTORIO VETERinario, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK

Granja Mariñones, GAITZA, Nafarroa
Idi. 649 472 057 - fax. 660 511 057
Mailoak.com | info@mailoak.com

IDIAZABAL

200 parte hartzaile baino gehiago bildu zituen XIX. Araitz eta Beteluko Krosak

Abule Esteban Elizalde eta Nerea Murua Carraskok irabazi zuten proba orokorra. Urtarrilaren 18an XIX. edizioa bete zuen Araitz eta Beteluko Krosak. Eguraldia lagun izan zuten eta 274 parte hartzaile aritu ziren lasterka, horietatik 71 haurrak.

Aurten ere, helduek Betelu, Arribe eta Atalluko kaleak eta mendi ingurua lotzen dituen 7,7 km-ko ibilbidea izan zuten aukeran. Ibilbide amaieran, herriarren arteko lehia ikusi izan zen azken segundoetan. Hurrenez hurren, helmugaratu ziren Abule Esteban Elizalde, Javi Menta Martinez eta Youssef Chelh. Lehenengo hiru emakumeak berriz, Nerea Murua Carrasco, Virginia Quellca Mamani eta Izar Amundarain Orbegozo izan ziren.

Erreleboka Laura Ramos Granjo eta Victor Etxeberria Carrasco izan ziren garaileak. Haien atzetik, Guratz Azpiroz Beuntza eta Xabier Azpiroz Beuntzak irabazi zuten eskualdeko lehenengo saria.

Eskualdeko lehenengo emakumeak Izar Amundarain Orbegozo, Jaione Mikeo Lasarte eta Aiora Irastorza Garmendia izan ziren. Lehenengo gizonezkoak berriz, Raul Amatriain Arraiza, Iñigo Lasarte Garcia eta Ander Elizalde Zubillaga.

Kategoria bakoitzeko irabazleek, bertako produktuekin osatutako saskiak eskuratu zituzten. Antolatzaileak gustura geratu dira ikusle zein parte hartzaileek emandako erantzunarekin.

Ikusi argazki galeria mailope.eus web orrialdean.



Garaileen argazki orokorra.



Araitz eta Beteluko XIX. Krosaren irteera.
Argazkiak: Juan Antonio Garaikoetxea



Jaione Mikeo, Izar Amundarain eta Aiora Irastorza podiumean.



Iñigo Lasarte, Raul Amatriain eta Ander Elizalde podiumean.



Guratz eta Xabier Azpiroz podiumean.

ESKUALDEKO ERRELEBOAK

Postua	Izen Abizenak	Denbora	km/min	Herria
3	Xabier Azpiroz Beunza	0:30:31	3:58	Uitzi
4	Guratz Azpiroz Beunza	0:30:31	3:58	Uitzi
13	Xabier Satrustegi Garcia	0:35:15	4:34	Errazkin
14	Nerea Malkorra Araolaza	0:35:15	4:34	Errazkin
17	Alaitz Olano Sotil	0:39:01	5:03	Betelu
18	Nagore Esnaola Huici	0:39:01	5:03	Lizartza

ESKUALDEKO KORRIKALARIAK

Postua	Izen Abizenak	Denbora	km/min	Herria
6	Raúl Amatriain Arraiza	0:26:25	3:26	UITZI
7	Iñigo Lasarte García	0:26:32	3:27	Lekunberri
27	Ander Elizalde Zubillaga	0:29:25	3:49	Betelu
30	Mikel de Carlos Gorria	0:29:58	3:53	Lekunberri
34	Manex Saralegui Izaguirre	0:30:36	3:58	Betelu
35	Ander Miqueo Cincunegui	0:30:42	3:59	Arribe
38	Izar Amundarain Orbegozo	0:30:46	3:59	Arribe
48	Ander Garmendia Otermin	0:32:19	4:12	Betelu
55	Eneko Recalde Iraizoz	0:32:45	4:15	Betelu
57	Unai Garmendia Huarte	0:32:56	4:17	Betelu
60	Jaione Mikeo Lasarte	0:33:02	4:17	Lekunberri
61	Alfonso Etxarri Azpirotz	0:33:05	4:17	Arruitz
68	Orkatz Aldave Alustiza	0:33:36	4:21	Lekunberri
71	Txomin Amondarain Orbegozo	0:34:05	4:25	Arribe
75	Ander Eslava de Miguel	0:34:32	4:28	Lekunberri
76	Ander Arraztio Saralegi	0:34:34	4:29	Betelu
80	Izei Goñi Martinikorena	0:34:45	4:30	Errazkin
81	Ander Balda Elola	0:34:49	4:31	Lekunberri
82	Aiora Irastortza Garmendia	0:34:51	4:31	Lekunberri
85	Oier Goikoetxea Lopetegi	0:34:57	4:32	Atallu
88	Iker Chasco Azpiroz	0:35:10	4:34	Lekunberri
89	Orgi Soroa Guelbenzu	0:35:10	4:34	Lekunberri
91	Andoni Urrestarazu	0:35:14	4:34	Betelu
95	Iñigo Ruiz Albiasu	0:35:57	4:40	Lekunberri
97	Iñigo Garmendia Goikoetxea	0:36:15	4:42	Betelu
98	Mattie Garaikoetxea Zubillaga	0:36:17	4:42	Betelu
104	Leire Olano Sotil	0:36:45	4:45	Betelu
108	Markel Satrustegi	0:37:03	4:47	Betelu
109	Maddi Sotil Buldain	0:37:07	4:48	Betelu
110	Iñaki Elizalde Zubillaga	0:37:07	4:48	Betelu
111	Oier Goñi Martinikorena	0:37:10	4:50	Errazkin
112	Josu Elizalde Zubillaga	0:37:12	4:50	Betelu
115	Mikel Zubillaga Areito	0:37:39	4:53	Betelu
118	Beñat Goikoetxea Lopetegi	0:38:10	4:57	Atallu
119	Asier Elizalde Zubillaga	0:38:11	4:56	Betelu
120	Xanti Garmendia	0:38:14	4:58	Betelu
122	Idoia Lizarraga Mauleon	0:38:28	4:59	Aldatz
125	Xabier Zubillaga Balda	0:38:31	4:59	Lekunberri
127	Aimar Estanga Arambarri	0:39:07	5:04	Lekunberri
128	Mattin Ezenarro Zendoia	0:39:26	5:07	Azkarate
129	Unai Otermin Satrustegi	0:39:31	5:07	Betelu
131	Imanol Estanga Arrizubieta	0:39:43	5:09	Lekunberri
137	Aitor Goikoetxea Iriarte	0:40:51	5:17	Betelu
141	Mikel Otamendi Ezkurdia	0:41:29	5:22	Betelu
142	Karlos Mitxelorena Arraztoa	0:41:29	5:22	Betelu
143	Ana M. Saralegi Otamendi	0:41:32	5:22	Atallu
144	Jon Elordi Ezkurdia	0:41:32	5:22	Atallu
153	Hodei Buldain Sestelo	0:44:33	5:46	Lekunberri
154	Xuban Golderazena Azpirotz	0:44:37	5:46	Arruitz
158	Iker Uruga Ruiz	0:44:48	5:48	Oderitz
159	Iñigo Gurrea Prados	0:44:48	5:48	Lekunberri
160	Xabier Lasarte García	0:44:49	5:49	Lekunberri
167	Iñaki Satrustegi Gorostegi	0:45:59	5:57	Betelu

MOTZ-MOTZEAN

OSKAR ESTANGA

Txarra kenduta ongi?

Modan dagoen esaerarekin hasi dut hila-bete honetako kolaborazioa, baina galdera ikurrarekin, gauza asko biltzen dituelako bertan. Hasteko, nola dugun ohitura “zer moduz?” galdetzen digutenean ongi esateko, gehiegi sakondu gabe. Hor ere badirudi galdetzen dugunean, espero dugun erantzuna dela ongi hori, orokorrean ez dugulako denbora eta patxadarik izaten gehiago sakontzeko.

Bestalde, ongi edo gaizki egotearen “orokorkeriarri” buruz informazioa ematen digu esaerak. Gaizki ez da inoiz erantzuten, oso gutxitan. Posible al da dena ongi edo dena gaizki izatea norbere bizitzan? Bai, posible izango da, baina askotan ez da pasako... Esaerak argitzen digu beti daudela gauza batzuk “ongi” eta besteak “gaizki”. Baina, zer da ongi eta zer da gaizki?

Orokorrean, minak, tristurak, hase-reak... “gaizki” barnean sartzen ditugu, aldiz poza, lasaitasuna, plazera... ongi bezala. Noski, gizakiok badaukagu berezko joera bat “ongi” horretarako, gure barne eta inguru orekak osasuna dutenaren seinale. Baina badugu ere horrelako gizarte exigentzia bat, arrakastaren exigentzia, non itxura mota bat izan behar dugun, arazorik ez izan... Bada esamolde bat diona: ongi esan beharko, gaizki esanez gero parra eitten diate ta... hor ikusten da exigentzia.

Azken aldian zera sentitzen ari naiz sakon, dena hasten eta bukatzen dela, denak duela bere alderdi pozgarria eta alderdi tristea, gozoa eta gogorra... Pertsona bezala gehiago normalizatu nahi ditudala minak, galerak, beldurrak, arazoak... hori egiten dudan heinean gutxiago pisatzen didatelako, ez naizelako arraro edo galtzaile sentitzen.

Elkar entzuteko ohitura sustatu nahi nuke, non gai garen elkar entzuteko gomendiorik eman gabe, zer den txarra eta zer ona esan gabe, elkar entzutearen indarrarekin, hori egon ahal izateko, zerbait eskaintzeko, eskatzeko... Prozesuak errespetatuz, txarra eta ona indarra galtzen doan lekuan, gure epaiek baino bizitzak berak erabakitzen duen lekuan.





emozioen munduan

●● Lorea Zulet (Psikologoa)

Sharenting: Gure seme-alaben zer irudi partekatzen ari gara?

Azken urteotan, gure seme-alaben argazkiak sare sozialetan partekatzea ohikoa bihurtu da. Lehen hortza, eskolako lehen eguna, keinu barregarria... Une horiek, guraso gisa, harrotasunez betetzen gaituzte eta munduari erakutsi nahi diogu. Sharenting terminoa share (partekatu) eta parenting (hazi) elkartzetik sortzen da, eta Interneten seme-alaben bizitzarekin zerikusia duen edukia argitaratzeko praktika deskribatzen du.

Hala ere, familiaren zoriona partekatzeko modu gisa hasten denak askotan kontuan hartzen ez

diren ondorioak izan ditzake. Zer gertatzen da gure seme-alaben argazkiekin sarean daudenean? Zer eragin izan dezake haiengan, ez bakarrik orain, baizik eta urte batzuk barra?


Gai honek urrunekoa iruditu dezake, baina ez da. Interneterako sarbidea eta mugikorren erabilera orokorra da, baita landa-inguruneetan ere, eta erakusketa digitala gero eta goizago hasten da. Askotan ez gara konturatzen gure seme-alabentzako identitate digital bat eraikitzen ari garela haien baimenik gabe, eta aztarna horrek

denboran iraungo du, samurtasun une batean egin genuen argitalpen hori ahaztu ondoren.

Gainera, arrisku zehatzak daude: hirugarrenek irudiak bidegabe erabiltzetik hasi, eta adingabeek beren burua estimatzera edo pribatutasunera arte. Ikerketa batzuen arabera, batez besteko haur batek dagoeneko ehunka argazki ditu Interneten bost urte bete baino lehen. Kontua ez da larritzea, baina bai hausnartzea. Alternatiba ez da erabat partekatzeari uztea, kontzientziaz egitea baizik. Geure buruari

26





BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.
Antigua kalea 7
31890 BETELU
948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com



German Lasarte HARATEGIA
Arbeondo
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157



SAN MIGUEL gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu



urrutia
enea
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

galdetu: irudi horrek intimitatea urratzen al du? Gustatuko litzaioke nire semeari argazki hau jendaurrean egotea hamar urte barru? Hau bere alde argitaratzen ari naiz, ala nire alde?

Beharbada, eskolako jaialdiaren argazkia argitaratu beharrean, gorde ahal izango dugu familiari zuzenean erakusteko, lehen egiten zen bezala, birtualen aurrean benetako loturak sendotuz. Gure bailaran, plazek, eskolek eta bideek topaleku izaten jarraitzen duten tokian, agian haurtzaroa ere espazio intimo gisa mantendu dezakegu, erakusleihu digitalik gabe.

Azkenean, oreka da kontua. Mundu digitalean ere hazkuntza kontzientea egitea. Izan ere, haurrak babestea ez da soilik gorputza zaintzea, baita irudia, identitatea eta munduak noiz eta nola ikustea nahi dugun erabakitze eskubidea ere.

Gai honi buruzko interesa baduzu, hurrengo eleberria gomendatzen dizut: *Los reyes de la casa* - Delphine de Vigan



LeKunBerri
TABERNA

948 507 628
lekunberritaberna@gmail.com
C/ Aralar, 4. baxo
31870 Lekunberri
@Lekunberri Taberna

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONIZEN
634 551 743
infoaralar@gmail.com

Errotaldeia 19,
Lekunberri

MARTILLO TXIKI
PERCUSIO ESKOLA

www.martillobixiki.com
679 938 016

KOTXERA
Taberna • Jatetxea • Brasa

948 50 43 52
kotxera13.com

Caserio Benta Zaharra,
Mugiro (Navarra)

Antsoenea
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

ANTONIO CARRARO

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA

696 658 288
LEKUNBERRI

OGI-BERRI ALTZA

Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Lontxo Otamendi Artola
Atallu - Araitz

“Nire ikerketa lurrazaleko satelite-irudien esparruan kokatzen da”



Yue Uriarte Alfaro.
Argazkia: Yue Uriarte Alfaro.

Datuek gero eta garrantzi handiagoa dute zientzia eta teknologiaren arloan. Izan ere, horien tratamenduak eta analisiak diziplina berriak sortu ditu azken urteotan. Testuinguru horretan kokatzen da Yue Uriarte Alfaro aldaztarra, datuen zientzian formatutako ikertzailea. Egun, Zientzia eta Teknologia Industrialetako doktoretza egiten ari da; baina bere ibilbide profesionala ez da hasieratik argia izan. Hala ere, bilaketaren, jakin-minaren eta erabakien bidez, bere interesa piztu duen esparru berezi bat aurkitu du.

Zer ikasi zenuen?

Datuen Zientzia ikasi nuen Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP), Iruñean, 2020tik 2024ra. Gradu hori amaitu ondoren, Prestazio Altuen Konputazioa izeneko masterra egin nuen, *High Performance Computing (HPC)* delakoa, Santiago de Compostelako Unibertsitatean (USC), 2024-2025 ikasturtean.

Zergatik aukeratu zenuen ikasketa-bide hori?

Batxilergoa amaitu ondoren ez neukan oso argi zer egin eta ikus-entzunezko komunikaziozko lehenengo maila ikasi ondoren, formakuntza zientifikoetara itzultzea erabaki nuen. Aldi berean, ingeniarietzek ez ninduten gehiegi erakartzen. Hala nola, datuen etorkizunari buruzko hitzaldi bat ikusi nuen. Bertan *big data*-k, datu masiboak gordetzeko, aztertze eta kudeatzeko sortutako teknologia-multzoak, etorkizunean izango zuen garrantzia azaltzen zuen. Zorionez, nire interes berezi guztiak batzen zituen: datuen zientzia, matematika,

estatistika eta programazioa.

“Inguruko erreferentziei esker erabaki nuen masterra egitea”

Norbaitek bultzatu edo inspiratu zintuen masterra egitera?

Inguruko erreferentziei esker erabaki nuen masterra egitea. Izan ere, Erasmus egonalditik itzuli nintzenean, lagun batek masterrari buruz hitz egin zidan, irakasle batek aipatu omen baitzion eta berak ere interesa zuen. Beraz, irakaslearekin bilera bat izan genuen. Honek, ikasketen edukiak, aukerak eta xehetasunak azaldu zizkidan. Une horretan argi ikusi nuen interesgarria izan zitekeela.

Zein doktoretza egiten ari zara?

Zientzia eta Teknologia Industrialetako doktoretza egiten ari naiz. Hau egiteko, ezinbestekoa izan da lehenik master bat amaitzea eta tesiaren tutore bat aurkitzea. Hori egin ostean, doktoretzan matrikulatu nintzen

ikerketa-lana abiarazteko.

Oso argi nuen doktoretza finantzaketa batekin egin nahi nuela. Izan ere, horrelako ikerketek 3-4 urte inguru iraun dezakete; baina finantzaketarik gabe eta jardunaldi erdia eginez, prozesua 8-10 urtera luzatu daiteke. Denbora horretan diru-sarrerarik gabe egotea oso zaila da. Beraz, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Doktoratu Aurreko Laguntza lortu nuen.

“Marko teoriko sendo bat eraiki nahi dut”

Zein da zure ikerketaren gaia?

Lau urteko ikerketa-prozesua denez, ezinbestekoa da ikuspegi orokor eta sakonarekin abiatzea. Une honetan marko teoriko sendo bat eraiki nahi dut. Horretarako, datu-multzoetan agertu daitezken alborapenak (sesgos) antzemateko erabiltzen diren metrikak ikertzen ari naiz.

Nire kasuan datuak irudiak izango dira, baina oraindik ez dago oso argi

tesia norantz bideratuko den. Halaber, helburu ezberdinetako ikerketak daude jada irudiekin: sailkapena (irudi bakoitza kategoria batera esleitzea), objektuen detekzioa (*bounding boxes*, irudi bateko objektu guztiak koadro mugatzaileen bidez aurkitzea) eta segmentazio semantikoa (irudi baten pixel bakoitza sailkatzea, irudian agertzen diren klaseak dituen mapa bat sortzeko). Hala, nire ikerketa lurrazaleko satellite-irudien esparruan kokatzen da, *Earth Observation* eta *Remote Sensing* arloetan. Momentuz, satellite-irudien datu-multzoek alborapenik duten, eta hala bada, zein motatakoak izan daitezkeen ikertzen ari naiz.

Beraz, etorkizunean, eredu matematiko eta estatistikoak entrenatu aurretik, alborapen horiek zuzendu beharko ditut. Ondorioz, ikerketak aurrera egin ahala, ikusten dudana araberaz bideratuko dut tesia.

Zergatik erabaki duzu doktoretza egitea?

Ikertzea asko gustatzen zaidalako erabaki nuen doktoretza egitea. Graduaren eta Masterraren Amaierako Lanak egiten oso gustura aritu nintzen, eta esperientzia horrek urratsa ematera bultzatu ninduen. Hala ere, gaia ez nuen nik aukeratu.

Hasieran, medikuntzarekin eta diagnostiko irudiekin lotutako ikerketa egin nahi nuen, baina Nafarroako Unibertsitate Publikoak ez du horrelakorik bilatu. Ondorioz, nire tutoreak aztertzeko zeuden hiru ildoak azaldu zizkidan eta horien artean, erakargarriena hautatu nuen.

Nola antolatzen duzu zure ikerketa?

Momentuz ez dut antolakuntza oso egituraturik prestatu. Lehenik eta behin, ikerketa egiteko egoera orokorra aztertzen ari naiz. Horretarako, *Deep Learning* (ikaskuntza sakona) izeneko ikastaro bat egin dut. Halaber, adimen artifiziala ezagutzen hasi naiz. Amaitzeko, tutorearekin eta tutorekidearekin bi astetik behin elkartu beharko dut, ikerketaren jarraipena egiteko.

Zein izan da zure ikasketetan bizi duzun momenturik zailena?

Unerik gogorrena Datuen Zientziarako lehen maila izan zen, ikasgaiaren arabera, ordu asko landuta ere gainditzea zaila baitzen. Baina batez ere, momenturik konplikatuena erabakiak hartzeko uneak izan dira.




Beraz, zure motibazio-iturririk handiena...


Motibazio-iturririk handiena ikertzea gustatzen zaidala da. Gaur egun, adimen artifizialaren modeloei erabaki asko automatikoki hartzen dituzte esparru askotan, kreditu eta mailegu sistemetan, justizian, osasun eta diagnostiko medikuetan, etab. Modelo horiek datuetako patroiak berenganatzen ditu eta kontuz ez bagabiltza, diskriminazioa sustatu dezakete. Beraz, testuinguru horretan, datuen akatsak topatzea eta konpontzea ezinbestekoa da.

- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN

680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM



Hizki-marrazki alfabetoari jarraikiz, eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia, eta esaera eder bat agertuko zaizu.



Kontsultatu soluzioak:

www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



AGENDA

OTSAILA

- 1- Emakumezkoen pilota jaialdia.
Lekunberri, Jaian Jai Frontoia.
- 4- Santa Ageda bezpera.
17:00 Azkarate.
17:00 Lekunberri (Herriko Plaza).
19:00 Aldatz.
19:45 Etxarri.
- 6-7- Lekunberriko inauteriak.
- 8- Ttutturre Eguna.
Mendi-irteera eta bazkaria Oderitzen.
- 9-26- Bidezko txokolatearen VIII Ibilbidea.
Erakusketa Mitxausean.
- 14-15- Aldatz eta Arruizko inauteriak.
- 16- 11:00 Euskaraz bai! Haurrentzako tailerrak.
Azpirotz.
- 18- 17:30 Eskalada tailerra.
Baraibarko Boulder Aretoa.
- 20- 19:30 Ttutturre Kirol Elkartek antolatutako
hitzaldia: 'Makalu entre gigantes', Uxue
Morales eta Ignacio Barriosekin.
Gabari Gune Irekia.
- 21- Baraibarko inauteriak.
Beteluko inauteriak.
Gorritiko inauteriak.

- 22- Ttutturren mendi irteera: Mondarrain
(Lapurdi) - Otsondo - Lizartzu - Mondarrain -
Atxulegi - Ainhua.

- 27- 19:00 Korrika Kulturala. Antzerki saioa
Pantxikarekin. Gabari Gure Irekia.

MARTXOA

- 6- 18:30 'Esnatu ala hil' liburu aurkezpena. Printza.
- 7- Gaintzako inauteriak.
- 15- Lekunberriko Krosa.

*Inauteritako egitarauak kontrazalean.

Beteluko Udalak Adinekoen Egoitza kudeatuko du

Beteluko Adinekoen Egoitza oraindik "Amavir Betelu" izenez ezagutzen da, baina 2025eko abenduaren 30ean, *Asistencial Villa de Betelu* elkarteko bazkide nagusiak sozietatea utzi zuen. Ondorioz, Beteluko Udala gelditu da haren jabe. Izan ere beste aukera bakarria ixtea baitzen.

Udalaren asmoa da entitatearen forma juridikoa aldatzeko prozesua abiatzea, eta Egoitza irabazi-asmorik gabeko proiektu bihurtu nahi du. Onurak sortuz gero, horiek osorik bideratuko lirateke egoiliarren arretaren hobekuntzara, langileen lan-baldintzen hobekuntzara, eta instalazioen mantentze eta egokitzetarako.

Egoitza osatzen duten pertsona guztien lankidetzeta eta konpromisoarekin, etorkizun sendo eta kalitatezkoa bermatu ahal izango dutela espero dute.

IORTIA CLINICA DENTAL - HORTZ-KUTXAKA

Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol. Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 661 769

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

ILE APAINDEGIA
ESTETIKA
PRESOTERAPIA
PODOLOGIA
LASER DEPILAZIOA ETA
DEPILAZIO ELEKTRIKOA
JENDE HELDUARENTZAT
ETXEZ ETXEO ZERBITZUA.
MIKROPIGMENTAZIOA
EZPAINETAN
MIKROBLADING
BEKAINETAN

@aitzberri

INAUTERIAK 2026

LEKUNBERRI

OTSAILAK 6

- 12:00** Eskolako lhotea: desfilea Ibarberri Eskola Publikotik Herriko Plazaraino. Euria bada, Plazaola Kirolgunean.
- 18:30** Herri lhotea: moxorroen eta Attezarkoren etorrera. Aralar Udal Musika Eskola eta Tirikitrauki Dantza Taldearekin. Udaletxea. Ondoren, barrikotea eta mokadua Herriko Plazan.

OTSAILAK 7

- 12:00** Suziria eta ihote-erronda Iraunkorrak Txarangak alaitua, Aralar Kaletik irtenda (Euskalduna). Ondoren, lehiaketa eta emanaldiak Herriko Plazan.
- 15:00** Herri Bazkaria Jaian Jai Frontoian. Txartelak Mitxausenean salgai urtarilaren 30era arte.
- 18:00** Iskidi Elkartearen kalejira Aralar Kaletik irtenda (Ainhoa). Ondoren, Attezarkoren erretzea Herriko Plazan.
- 19:30** Kalez kale Xaukena Elektrotxarangarekin Alde Zaharretik irtenda.
- 20:00** Dantzaldia DJ Oixanirekin. Herriko Plaza.

ALDATZ

OTSAILAK 14

- 09:30** Kalejira.
- 14:30** Bazkaria sagardotegian. Ondoren kalejira.
- 19:30** Txerrizarka erretzea.

GORRITI

OTSAILAK 21

- 13:00** Mozorro lehiaketa.
- 14:30** Bazkaria Herriko Etxean trikitilariekin alaitua.
- 19:00** Kakomomo erreko da, bere inguruan dantzatzuz.
- 20:00** Herriko etxean pintxoak. Ondoren musika goizaldera arte!

BETELU

OTSAILAK 21

- 10:00** Karrozen desfilea plazan.
- 10:30** Puskabiltza Elektrokutatu elektrotxarangarekin. Tartean karrika dantza plazan.
- 15:00** Herri bazkaria frontoian. Ondoren mozorro lehiaketa.
- 17:30** Dantzaldia Iraultza erromeriarekin. Bukatzean ogitartekoak banatuko dira.
- 23:00** DJ Rivera goizaldera arte.

GAINTZA

MARTXOAK 7

- 11:00** Puskabiltza trikitilariez alaiturik.
- 19:00** Poteo Herrikoia.
- 21:00** Herri Afaria Sonbelu elkartean.
- 00:00** DJ Andoni.